

Emilia Bidondo Adot
Abaurregaina, Nafarroa (1909)

Aurkibidea

Biografia

Aezkoako Abaurregaina udalerrikoa. Gurasoak ere aezkoarrak zituen: ama Abaurregainekoa eta aita Abaurrepekoa. Bere senar [Victoriano Zelai](#)rekin batera egin zion elkarrizketa Koldo Artolak 1991n.

Zintak

ABA-010

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 11 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ABA-013

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Gabon-kanta

- **Erref:** ABA-010/001
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gabon-kanta bat abesten du Emiliak.</p>

Transkripzioa

- Emilia Bidondo: Da, orroroso zarra ori!... bai, zaarra da! ta, fija zte, ene amak ere etzue ongi ikasi? eta...
- Victorião Zelai: Ta onek laetanogeita bi urte baitu...
- EB: Ta, lauetanoita bi urte ba-baititut? pues fija zte, xuk e? noizkoa den, kontua. 'Nora zoazen erran dezta-...'
- Eta Kixketekoak bi ziren, bi emaztekiak?
- VZ: Ez, ez! ilik daude, ilik daude.
- Bi ziren? bi emazteki zahar?
- VZ: Ah, bi? bai, bi aizpa... bat Florenzia ta bertzea Basilia.
- BE: Ta aek ere... pues eztakite, etzakite ongi, ez, ez-ez.
- Eta hori, kantu hori noiz sartu zen hemen?
- BE: Gen? ooo, anitz... leeengua!
- Ama Birjina Arantzazukoa ez baita hemengoa; norbaitek ekarriko zuen...
- VZ: Nik eztakit.
- BE: 'Nora do(b)azen erran deztezu, Ander...'
- Aber, aber, hasi, hasi...
- BE: '... Ander Dena Maria'.
- VZ: Asi, asi zan, asi, lemixkotik asi.
- BE: Bai, nik e... guziak ezpalimadazkit...
- VZ: Baia astea ere eztakin? nola asten den?
- EB: Bai, bat, badira bost klase; oai, bost klase.
- Tira, hasi...
- VZ: Lauetanogeita bi urtetan ez... eztu kantatuko, pues amatxi gartakoak eta emazteki gaek? korrientiä.
- EB: Bai, ta orrek ere badaki, utzi bai, daonak:

1. Nora zo(b)azen erren deztezu
Ander Dena Maria
Ni banaien Belenera
Beleneko irira
Beleneko irira (y)eta

(t)Seroren ospitalera.

2. Ospitaleroak galdein zoute
Zue(k) nongoak zarate?
Kaminante batzuk giraren eta
Ostatu biar ginduke.

3. Erien eta pobrerendako
Ospitaleroak girade
Zuek pobre zeinbat zaraten eta
Alzina kamina zazie.

4. (z)Ori aitu zuenean
Josepe xaunak
Nigarrari eman tzue.

5. Ortxen goiti artzaiña(k) tira
Gauzen gu ere arara
Arara arbidea luzea dago (y)eta
Erditzeko ere peligroa.

6. Ama Berjina erditten (t)sarri
Borda ireki batera
Borda ireki bateran eta
Idi-ganbella batera.

7. Amak Semea maiolatzen tzue
Arri otzaren geinean
Idiak atsas berotzen eta
Mandoak ostiko emaiten.

8. Idia benedikatu eta
Mandoa maradikatu
Amen, amen dela Jesus
Guzien Salbatzalea.

9. Zure izenean errenen dugu
Gogo ones abemaria
Bai eta're paternoster
Jauna dakigun balira
Jauna dakigun balira (y)eta
Bertze munduan gloria.

2. Bederatzi urterekin hasita, artzain

- **Erref:** ABA-010/002
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:07:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bitorianok kontatzen du bederatzi urterekin aitarik gabe geratu zirela. Bederatzi haurride ziren. Pobreak zirela dio, etxe pobrea zutelako, lur gutxikoa. Bederatzi urterekin artzain joan zen etxe batera eta lau ogerleko irabazten omen zituen. Gerora ere beti artzain edo unai ibili omen zen.</p>

Transkripzioa

- Eta gero zu (Victoriano Zelairi) zertan ibili zara, ofizioz edo? mendian edo...
- Victoriano Zelai: Mendian! ta... mendian.
- Eta ikatza egin duzu edo?
- VZ: Ez! e... gen ez! bai, mendian, ta...
- Eta zer kontatzen ahal duzu? nola pasatzen zenuen egun bat mendian?
- VZ: Ah, gazki, gaizki... gaizki.
- Emilia Bidondo: Geizki, aziendaekin? pues...
- Ia, konta ezazu nahi baldin baduzu...
- VZ: Bederatzi urtetan baratu nindua aiteik gabe; ginduzta... bedratzi... aurride, badakik zer diren aurrideak?
- Bai, bai, bai, hermanos y...
- VZ: Hermanos y hermanas; bed(e)ratzi. Bueno, pobreak, etxe pobrea zua, eta...
- EB: Lur guti, kanpo guti.
- VZ: Lur guti, eta... niri? bederatzi urtetan, fan nindua artzei etxe batra, gor, karnizeriara, artzei? bi urte pastu nitia gan, badakik zenbat irabazten nuen?
- EB: Oh! bai, ori...
- VZ: Laur duro ilabetea; laur duro badakik zenbat diren?... ¡veinte pesetas! baia, laur duro... laur duro ilabetea, irabazix eon nindua bi urteas, ni etxe gartan, eta ene ama zenak? erran txiakota... nagusiari: "Jangoikoas, boina bat berere erregala dazok" eta "Bueno"... -bazia komertzioa, gizon arek bazia komertzio, ta- "Bueno, boina bat emein txakonat". Boina badakik zer den?
- Bai, bai...
- Txap(e)la. "Bueno, emein txakonat boina bat". Tiendan tzeon boineik andien-andiena eman txaeta... galako boina bat! eta nik gala armendua? gala! ezin nindua ni! eta bah! bah, ola... etxik-, zer bide eman nekon. Gero?... beti artzei! artzei ta unei, gen, orduan, lerr aardi ta, ler, bakizu?
- EB: Une-, unei...
- VZ: Unei ta artzei...
- Ler, pino?
- Ez, ez; ler ardi, muchas ovejas.
- EB: muchas ovejas y vacas...
- Ah, bai? ler da muchas? ler ardi, e?... Bizkaian erraten dute lar
- VZ: Pues gen ler, bai.
- Ler, ler ardi, muchas ovejas, e?
- VZ: Bai, bai, bueno; beti artzei're izan nindua eta... pues...
- EB: Edo beeki.
- VZ: Azke-, lemixko abendu(b)etäik; badakik noiz den lemixko abendua?
- Noviembre...
- ¡El primer día de noviembre! lemixko abienduteik asi, eta Santa Kruz egunereino? beita el tres de mayo? maiatzen irura? ibiltzen nindua artzei? badakik zenbat pagatzen tzadaten? ardi bakotxa bi pezta.
- EB: Bai, ta pues gala baitzego, sartzeko zela...
- VZ: Klaro! galai(k) xeo, gala xëo ta biye(k)? ta, ni... aniz trabajatuik nuk eta, izan nuk... biboa ere, bai, ori bai, kurruskoa atratzen nia...

3. Soldadutzan barre egiten zioten, erdaraz ez zekielako

- **Erref:** ABA-010/003
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Abaurrepean euskara galdua dela diote. Victoriano dio bera soldadutzara joan zenean ez zekiela erdararik eta barre egiten ziotela. Eskolan ikasten zuten erdara. Soldadutzako kontuak.</p>

Transkripzioa

- Hor, Abaurrepean, euskara anitzez galduago da, e?
- Victoriano Zelai: Bah! gor bai...
- Emilia Bidondo: Bai, gor galduik dao.
- Eta nola, nola da hori?
- VZ: Pat? nola-nola... i! ni, ni fan nintzeleik soldao? nik eñakitea... erdera, eta irri eiten txadatia, eta orduan, mekuendiez! nik enia nai irri etie utzi nai...
- EB: Ez, baia eskolara faten gine, eskolan ikasten.
- VZ: Eskolan ikast-, ikasten gindia erdera, erdera; baña, orduan, denbora gaetan gutti faten ginduzte eskolara; ni bed(e)ratzi urtetan? edo amar urtetan? adios! hala! como se dice en vasco, o en castellano, 'a buscar el currusco'.
- EB: Aita, aita il zitzeio...
- VZ: Ya, orduen guziek elekatzen gindia gen uskara! eskolatik landa? gutziik.
- EB: Guziak! ooooh!...
- VZ: Guziak uskara!... ta gero, soldao fan nintzeleik ni, nik eñakitea... erdera, eta rediez! irri eiten txadatëa, ta orduan, bueno-bueno-bueno!... gou ja ta kontu ta, benga... je-je! erdera. Klaro! segitu baze ta oreiko aprezio izan bazue erdera, edo uskerak? baia orduan etzia uskerak... mekaguendiez! bai-bai, Francori ta, erran dazek uskera! ja-ja-ja!
- EB: Ona... gerran... zeleik-eta gen, ba bezte anitz...
- VZ: Ah! gerran izan tzua gen soldao... anitz, eta... etzitea uzten uskaras elekatzra, aek guziak erdaldunak zitua? ta, etzitea i(b)iltzen ere uskaras; orrengatik galdui(k) xu gen uskara. Ene seme, orei kotxekin fan den gorrek? orrek ere bazekik ongi uskara, baia... eztik, batre... kursatzen? ta, ez kursatuaskos...
- EB: Erdizka... nea(g)o erdera.
- VZ: Eta badakik non lizenziatu in zadaten? eonik yago en la provincia de Murcia? eonik yago? Murzian? ez...
- Ez, ez-ez-ez-ez.
- VZ: Ez, pues ni gan, lizenziatu in xatia? e... garagarzaroin amekan, lizenziatu xa(d)atia? oita... mil novecientos treinta y nueve, kanti(k). Nik a... zorriak badakik zer diren...
- Zorriak? piojos.
- VZ: Piejos; yo habré tenido... sesenta mil piejos fácil he tenido... y como yo todos, e? no creas que sólo yo... boh!... Los soldaos...
- Segi, segi, euskaraz, euskaraz...
- VZ: Ah!... aquí sesenta mil piejos he tenido yo en el cuerpo.
- Bai?
- VZ: Bai, bai, bai...

- EB: Auk istorio agoaldiak!...
- VZ: Ez! kentzak apare-, ez!... (magnetofoniagatik) eztuk funtzionatzen!
- Bai, bai, bai, funtzionatzen du, bai...
- Eh! kentzak gori! baaah!...
- Pollita da, sinpatikoa da; kendu behar badugu zorri bakoitza banan-banan, pentsa hirurogei mila kentzen duguneko; hori ere sinpatikoa da, anekdotikoa, e?
- Bai, ez-ez-ez! kontatzeko bai, kontatzeko.

4. Abaurregaineko gabon-kanta

- **Erref:** ABA-013/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Bestelako kanta
- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Aspaldikoa den gabon-kanta bat abesten dute. Emiliak dio bere amak ere ez zuela ongi ikasi.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com